



Euskararen kutxa

Hitz-ordena lantzen

Pello Esnal

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK) hiru oinarriren gain dago eraikia. Oinarri soziokulturala da horietako bat. Oinarri hau, garrantzizkoa izanik edozein kurrikulutan, areago da euskara-irakaskuntzarenean, oraindik euskara (gizarte- eta hizkuntz) normalizazio-bidean den neurrian.

Normalizaziorik ezak ondorio zehatzak ditu euskalduntzearen maila banatan, arrazoi ezberdinengatik. Laugarren mailan, adibidez, maila honetako ikaslea, besteak beste, normalizatu gabe dagoen esparru bateko hizkuntz erabiltzaile kualifikatu (izango) delako.

Ondorioz, laugarren mailan berezi landu beharko dira lexikoa eta sintaxia. Artikulu honek sintaxia du gai; hobeto esanda, hitz-ordena.

Inor gutxi azaldu du Luis Villasantek bezain gordin zein den euskal prosaren gaurko egoera. Hauxe zioen *Euskararen auziaz* liburuan (Villasante, 1988: 142):

Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, euskara bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena.

Euskara hizkuntza bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena.

Zergatik dagoen euskal prosa egin gabe ere azaldu zuen: XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, garbizalekeriak eragindako etenaga-

tik. Izan ere, ordu arte, apurka-apurka bere bidea egiten ari zen euskal prosa, bai euskalki banatan, bai euskalkien arteko batasunean. Garbizalekeriak, ordea, eten egin zuen bilakaera.

Ondorioz, Villasantek berak dioen moduan, katigatua geratu zen euskal prosa: “besoz eta zangoz katigatua” (Villasante, 1975: XII; 1976: XV). Prosa gutxitu honen ezaugarriak ere atzeman zituen gernikarrak: hitz-ordena desegokia eta testu-antolatzaileen eskasia (Villasante, 1975: X-XI). Diagnosi argiagorik!

Nik, neure aldetik, uste dut beste gaitz-iturri bat ere sala daitekeela, garbizalekeriaz gain: gramatikaren izenean arautu nahi izana hitz-ordena eta testu-antolatzaileak, soilik gramatikaren alorreko balira bezala. Horrekin gaitzetsi, ez dut gramatika bera gaitzesten, baizik eta honen erabilera gehiegizkoa, dena gramatika bailitzan eta gramatika, nahikoa.

Villasanteren hitzek ez dute gaurkotasunik galdu. Oraindik bideratu gabe ditugu testu-antolatzaileen eta hitz-ordenaren arazoak, nahiz eta azken urteotan egin den aurrerabiderik.

Hain zuzen, egoera honetan landuko dugu hemen euskal hitz-ordena, didaktikara begira batik bat eta testu-antolatzaileen arloan orain arte landu duguna ere kontuan hartuz.

Bi ataletan jardungo dugu: lehenengoan, ikuspegi egokian kokatuko gara; bigarrenean, hiru puntu zehatz jorratuko ditugu. Ondoren, eranskin bat dator, galdegaiari buruz esandakoak osatu nahian.

1. Ikuspegi gramatikaletik ikuspegi komunikatibora

Gramatika eta euskarazko hitz-ordena direla-eta, bi uste oker bezain gaizto daude euskaldunon artean zabaldua: batetik, arautzen duena baino gehiago arautzen duela gramatikak eta, bestetik, hitzak ordenatzean ere nahikoa dela arau gramatikalak betetzea.

Uste ohi dugu, izan ere, gramatikak arautzen duela nola idatzi:

Axular Urdazubin jaio zen.

ala

Axular jaio zen Urdazubin.

Baina biak dira zuzenak (gramatikalak). Eta esanahi berbera izan dezakete biek. Zer esanahi duen esaldi bakoitzak, doinuak zehaztuko digu. Idaztean, ordea, ezin aldatu doinu hori paperera. Eta horixe nahi izan zuten Altubek-eta: elkarrekin lotu doinua eta hitz-ordena; azken batean, lege bat ezarri: nolako doinua, halako hitz-ordena; eta nolako hitz-ordena, halako doinua (Esnal, 2003: 22).

Lege hori ezarri nahi izan zuten. Eta ezartzea ere lortu zuten; Hegoaldean, batik bat. Arrakasta txikiagoa izan zuten Iparraldean; hemengo prosa, tradizio luzeagoa izaki, ez zen makurtu lege arrotzetara.

Baina kaltea egina dago. Eta ez da kalterik txikiena, ez, bitan banatu izana euskal prosa: batetik, Iparraldekoa eta, bestetik, Hegoaldekoa.

SOA (subjektua, osagarriak, aditza) ordena nagusituko da Hegoaldean; ez, ordea, Iparraldean.

Ondorioz, balio mugatua izango dute euskarazko hitz-ordenari buruzko lanek, baldin eta Hegoaldean eta XX. mendean soilik egindako prosan oinarritzen badira. Eta tentuz irakurri beharko dugu, besteak beste, Rudolf de Rijken “Is Basque an S.O.V. Language?” lan sonatua (Rijk, 1969). Era berean, tentu handiz erabaki beharko dugu zer hitz-ordena jo markatutzat eta zer ez-markatutzat.

Kaltearen konponketa, praxia eta teoria landuz bideratuko dugu, eta orain arteko lanak kontuan hartuz. Alderdi honetatik, lan eskerga egiten ari da Bittor Hidalgo, doktore-tesitik hasita (Hidalgo, 1994). Lehenago, artikulu benetan jakingarria eman zuen argitara Koldo Mitxelena: “Galdegai eta mintzagaia euskaraz” (Mitxelena, 1988); eta oinarri-oinarriko lana eskaini zigan Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak hitz-ordenaz (Euskaltzaindia, 1987; 1991; 1993). Hemen, Mitxelenaren eta Gramatika batzordearen lanak baliatuko ditugu batik bat; elkarren osagari eta zuzentzaile baitira.

Lehenik eta behin, funtsezko bereizketa egiten du Gramatika batzordeak: funtzio-egituraren eta mintzagai-egituraren artekoa (Euskaltzaindia, 1987: 25; 1991: 359; 1993: 23). Funtzio-egiturakoak dira subjektua eta predikatua; mintzagai-egiturakoak, mintzagaia eta iruzkina. Eta, hain zuzen, iruzkinaren baitan kokatzen du batzordeak galdegai.

Lehen urrats horren ondoren, zehatz definitzen du galdegai, iruzkinaren baitan. Baina, definizioa gogoratu aurretik, komeni da etekina ateratzea aipatutako funtsezko bereizketa horri, bai ondorio batez jabetuz, bai beste bereizketa bat ere eginez.

Galdegai iruzkinaren baitan kokatu izanari esker –eta kontuan izanik hizkuntza guztietan atzeman dezakegula mintzagai-egitura– ari gara poliki-poliki geureganatzen lehendik ere igarria genuena: galdegai ez dela soilik euskaraz ematen. Urrutira joan gabe, gaztelaniaz ere badugula galdegai, nahiz eta oraindik batzuek euskarakadatzat jo horrelakoak.

Adibidez, har dezagun erdal esaldi bat:

El tiempo pondrá las cosas en su sitio.

Besterik gabe, dagoen dagoenean, bi eratara esan edo irakur dezakegu: markatu gabeko doinuaz, gehienetan (ia beti) egiten dugun bezala, eta doinu markatuaz –“el tiempo” markatuz– “es el tiempo el que pondrá las cosas en su sitio” esaldiaren esanahiaz.

Manuel Rivas galiziar idazlearena da esaldi hau:

El aplauso le llamaban a aquella tortura.

Testuinguruak argituko du doinu markatua duen ala ez. Hona hemen, Sigrás eta Caronte pertsonaien arteko hizketan (Rivas, 2006: 18; antzerki-testua da eta galegoz dago idatzia jatorrizkoa):

SIGRÁS

¿Respetar en la cárcel? En la cárcel no se respetaba nada. Cuando camino sigo sintiendo el peso de los grilletes y los tobillos despellejados como si viniese de la Edad Media. Y además, casi me dejaron sordo con aquella paliza.

CARONTE

Casi, no. El aplauso le llamaban a aquella tortura. Un aplauso que reventaba los tímpanos. Eran tiempos de eufemismos.

Beraz, doinu markatuaz irakurri behar dugu “el aplauso”, nola deitzen zioten tortura hari adieraziz. Galdegaia da “el aplauso”.

Agian, urrunegi joan gara. Baina merezi zuen funtsezko bereizketari darion ondorioaz jabetzeko. Merezi du, halaber, bereizketa horren harian, beste bereizketa bat ere egitea; eta ez, inola ere, aurrekoa baino hutsalagoa. Ondo bereizi behar baitugu, euskarazko hitz-ordenaz ari garela (ere), zer den gramatikaren alorreko (zer den zuzena) eta zer ez.

Gramatikaren arauak oinarri-oinarrizkoak dira. Hizkuntza batek berez-berezkoak dituenak. Hizkuntza baten ezaugarriak atzemanek atreak. Horiek bete ezean, ez dago hizkuntzarik. Horrexegatik da funtsezkoa hizkuntz erabiltzailearen gaitasun gramatikala. Esaterako, euskaraz, *-k* marka darama ergatiboak. Hala, oker dago (ez da euskara):

*Etxegilea etxe bat egin du.

Arau gramatikalek, ordea, ez dute dena arautzen. Argi ikusten da euskarazko hitz-ordenari erreparatuz. Honela, oker daude (ez dira euskara):

*Etxegileak bat etxe egin du.

*Etxegileak etxe egin bat du.

Baina bata bezain zuzenak (euskara) dira, besteak beste:

Etxegileak etxe bat egin du.

Etxegileak egin du etxe bat.

Etxe bat egin du etxegileak.

Egin du etxegileak etxe bat.

Egin du etxe bat etxegileak.

...

Eta, aurreratu dugunez, doinuaz zehazten dugu esaldi bakoitzaren esanahia. Eta gehiegizkoa da gramatikaz arautu nahia doinua eta hitz-ordena. Horrexegatik diot, puntu honen hasieran, uste baino gutxiago arautzen duela gramatikak, eta zuzendu beharrean gaudela uste oker hori.

Horrek ez du esan nahi, hala ere, behin gramatika-arauak betez gero nolanhiko hitz-ordena erabil daitekeenik euskaraz. Eta honek bigarren uste okerra zuzentzera garamatza. Uste honen arabera, euskarazko hitzak ordenatzean nahikoa da arau gramatikalak betetzea. Hau da: nahikoa da esaldiaren osagai bakoitza gramatikala izatea, esaldi osoa egokia izateko; eta nahikoa da esaldi bakoitza gramatikala izatea, testu osoa egokia izateko.

Baina testuak ere baditu bere legeak. Hauek ez dira arau gramatikalak bezain zorrotzak eta itsu-itsu bete beharrekoak. Horiek ez betetzeak ez dio hizkuntz izaerarik ukatzen testu bati. Baina hitz-ordena batek erraztu egin lezake komunikazioa, eta beste batek oztopatu. Eta hori garrantzi handikoa da hizkuntz komunikazioan. Horrexegatik da garrantzi handikoa hizkuntz erabiltzailearen gaitasun testuala ere.

Arau gramatikalak bete egin behar dira, eta estu-estu bete ere. Eta kito. Testu-legeek, ordea, erabakien eremura garamatzate; azken batean, aukera batzuen aurrean uzten gaituzte sarritan eta geuk hartu beharko dugu erabakia zein aukera hobetsi. Hain zuzen, horixe da gaitasun estrategikoa: erabakimena; erabaki egokiak hartzeko gaitasuna.

Erabaki horiek, apurka-apurka, ohitura bihurtzen dira idazle bakoitzean; eta ohitura horiek, estilo. Eta, norbanakoaren ohitura horiek zabalduz doazen neurrian, talde edo gizarte baten ohitura eta usadio bihurtuko dira; azken batean, tradizio. Eta tradizio horren baitan eta eraginez ikasiko du ikasle bakoitzak hizkuntza erabiltzen, gaitasun soziolinguistikoa garatuz.

Horrela, ia oharkabean, bata bestearen ondoren aipatu ditugu, banan-banan, gaitasun komunikatiboa osatzen duten lau gaitasunak: gaitasun gramatikala, gaitasun testuala, gaitasun estrategikoa eta gaitasun soziolinguistikoa. Horretaz jabetu ahalean goaz pasatzen ikuspegi gramatikal hutsetik ikuspegi komunikatibora (HABE, 1999: 19-20).

Eta ikuspegi komunikatibo honen baitan zuzenduko ditugu aipatutako bi uste okerrak, batetik, dagokion esparrua (funtsezkoa baina mugatua) aitortuz gramatikari eta, bestetik, dagokien zeregina aitortuz testu-legeei, estrategiei eta soziolinguistikari. Bai: uste baino txikiagoa da gramatikaren eremua eta uste baino helduleku gutxiago eskaintzen digu gramatikak; eta, neurri berean, uste baino erantzukizun handiagoz jokatu behar dugu hizkuntzaren erabileran.

Horrexegatik, “Hitz-ordena *lantzen*” dio artikulua izenburuak; hitz-ordena ere landu egin behar baitugu, gaitasun estrategikoa garatuz eta gaitasun honekin osatuz eta hornituz gaitasun gramatikala, gaitasun testuala eta gaitasun soziolinguistikoa.

Hiru puntu zehatz landuz jabe gaitzeko hobeto horretaz guztiaz.

2. Hiru puntu zehatz langai

Hitz-ordena entzun orduko, Altube eta galdegaia etortzen zaizkigu gogora, askori behintzat. Baina hitz-ordena ez da soilik galdegai kontua. Besteak beste, hitz-ordenarekin lotuta daude, galdegaia ez ezik, mintzagaia, mintzagai hanpatua, iruzkina eta, honen baitan, galdegaia. Eta baita testu-antolatzaileak ere.

Horietako hiru landuko ditugu hemen: testu-antolatzaileak, mintzagaia eta galdegaia.

2.1. Testu- -antolatzaileak

Lehendik ere landua dugu testu-antolatzaileen gaia (Esnal, 2002a, 2002b; Elosegi, Esnal, 2004). Eta saiatuak gara 1) bereizten ikuspegi gramatikala eta diskurtsibo-testuala (komunikatiboa), 2) zehazten testu-antolatzaileen eremua, 3) zerrendatzen eta sailkatzen testu-antolatzaileak, 4) zehazten testu-antolatzaileen ezaugarriak eta funtzioak (tarteki izatea [batzuk], lokailu izatea, eta iragarle izatea), 5) erreparatzen testu-antolatzaileen mugikortasunari: zein mugi daitezkeen eta zein ez, eta 6) lantzen beraien erabilera estrategikoa.

Eta, hain zuzen, honako hau dugu idatzia testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa dela-eta, zazpi estrategia zehatz aipatu aurretik (Elosegi, Esnal, 2004: 77-78):

Batetik, arauen mundua dago hizkuntzan. Eta horiek betetzen laguntzen digu gaitasun gramatikalak. Arauek, ordea, gutxienekoa markatzen dute. Eta, (ia) beti, hitz egiterakoan eta idazterakoan, aukera bat baino gehiago gelditzen zaio hizkuntz erabiltzaileari. Adibidez:

Nik, egia esan, arrantzale edo baserritar izatea nahiago nuke; baina ez naiz, zoritxarrez, ez arrantzale eta ez baserritar.

Esaldi honetan, **nik** behar du izan –eta ez **ni**–, esaldia gramatikala izango bada. Era berean, ez litzateke gramatikala izango beste honako hau:

* Nik izatea nahiago, egia esan, arrantzale edo baserritar nuke; baina ez naiz, zoritxarrez, ez arrantzale eta ez baserritar.

Baina, behin arau gramatikalak betez gero, aukera bat baino gehiago du hizkuntz erabiltzaileak. Adibidez, **egia esan** kokatzeko. Edo **zoritxarrez** tartekatzerakoan:

Egia esan, nik arrantzale edo baserritar izatea nahiago nuke;
Nik, **egia esan**, arrantzale edo baserritar izatea nahiago nuke;
Nik arrantzale edo baserritar izatea nahiago nuke, **egia esan**;

baina, **zoritxarrez**, ez naiz ez arrantzale eta ez baserritar.
baina ez naiz, **zoritxarrez**, ez arrantzale eta ez baserritar.
baina ez naiz ez arrantzale eta ez baserritar, **zoritxarrez**.

Hizkuntz erabiltzaileak behin eta berriro hartzen ditu erabakiak, hizkuntza ahoz nahi idatziz baliatzean. Dela berak dituen arazoengatik, dela hartzailearengana hurbiltzeko, dela hizkuntzaren egoera soziolinguistikoagatik, dela komunikazioa errazteko edo biziagotzeko...

Euskararen kasuan, ezagunak dira egoera soziolinguistikoak eragindako oztupoak, edo euskararen beraren garapen mugatuari darizkionak.

[...] hain zuzen, testu-antolatzaileen erabilera estrategikoan dago, neurri handi batean, testugintzaren gakoa eta gaitasun testualaren giltza.

Eta ondoren aipatu genituen zazpi estrategia, eta adibidez hornitu.

Gai egokia da testu-antolatzaileena, ikusten hasteko zer esan nahi duen hitz-ordena lantzeak.

2.2. Mintzagaia

Testu-antolatzaileena baino gai konplexuagoa da mintzagaiarena. Horregatik, lerrokada hasierako mintzagaia mugatuko gara artikulua honetan, adibide batzuk lagun eta betiere jakintzat emanda zer den mintzagaia (Euskaltzaindia, 1987: 26-29; 1991: 360-364; 1993: 24-25).

Aurreneko adibidea lehen ere erabilia dut (Esnal, 1998: 36-37), euskal gotzainen idatzi elebidun batetik hartuta (Euskal gotzainak, 1998: 14-15), intentzio osoz. Ondo baitakigu zenbat lantzen eta zaintzen dituen Elizak, edukiaz eta formaz, bere idatziak.

Erdal pasarteak, jatorrizkoak, honela dio:

Celebrar la Pascua de la resurrección es mirar con el corazón abierto de par en par a la vida eterna esperada como la vida definitiva y verdadera. Es reconocer el amor inmenso de Dios que nos asocia a su vida espiritual y a su gloria eterna. Es sentirse mayor y más importante que todas las cosas de este mundo. Es recuperar la libertad para usar de todo lo que hay en el mundo con sabiduría, sin ser esclavo de nada ni de nadie. Es recibir el don de ayudar a vivir a los demás en el gozo anticipado de la comunión universal.

Euskal bertsioak, berriz:

Behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera begira jartzen gara, bihotza zabal-zabalik, piztuerako Pazkoa ospatzen. Jainkoaren neurrigabeko maitasuna aitortzen dugu, Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualetan eta betiereko ospean. Mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago sentitzen gara. Munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna berreskuratzen dugu, ezeren eta inoren esklabo izan gabe. Lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina hartzen dugu, denen elkartasuna aurrez gozatuz.

Berehala igartzen zaio: itzulpena ez dago estu-estu egina. “Berdintasun dinamikoa” deitutako irizpidea erabili du itzultzaileak (Etxezarreta, 1981: 203), baina alderdi testuala kontuan hartu gabe.

Ikuspegi gramatikaletik begiratuta, baliokideak dira bi pasarteak. Biak dira zuzenak esaldiz esaldi. Biak daude esaldi zuzenez osatuak. Biek betetzen dituzte gramatika-arauak. Hitz batean, biak dira gramatikalak.

Ikuspegi testualetik begiratuta, ordea, ez dira horren baliokide. Erdarazkoa, oso egoki antolatuta dago, mintzagaia buru-buruan duela [“Celebrar la Pascua de la resurrección”] eta mintzagai horrekin egoki lotutako esaldiz osatua, hauetako bakoitzaren hasierako “es” aditza lotura. Euskarazko testuan, aldiz, lehenengo esaldiaren amaieran dator mintzagaia [“piztuerako Pazkoa ospatzen”], eta askoz ere ezkutuagoa da, nahiz eta badagoen, mintzagaiaren eta ondorengo esaldi bakoitzaren arteko lotura.

Bestela esanda, testu egokia da lehenengoa, bai ikuspegi gramatikaletik, bai ikuspegi testualetik begiratuta. Bigarrenak ere ez du inolako aitzakiarik gramatikaren aldetik; baina desegokiagoa da ikuspegi testualetik. Eta horrek irakurgaitzago bihurtzen du.

Horiek horrela, jatorrizkoa ikuspegi testualaz itzultzeko, hasiera-hasieran ipini beharko dugu mintzagaia; eta, ondoren, ageriago adierazi esaldi bakoitzaren mintzagaiarekiko lotura eta egin beharreko gainerako aldaketak ere egin: esaldien baitako hitzen ordenarena-eta. Honela-edo (Esnal, 1998: 38; azpimarratuta doaz mintzagaia eta lokailuak).

Piztuerako Pazkoa ospatzean, begira jartzen gara, bihotza zabal-zabalik, behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera. Eta Jainkoaren neurrigabeko maitasuna aitortzen dugu, Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualean eta betiereko ospean. Eta mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago sentitzen gara. Eta munduko gauzak zuhertasunez erabiltzeko askatasuna berreskuratzen dugu, ezeren eta inoren esklabo izan gabe. Eta lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina hartzen dugu, denen elkartasuna aurrez gozatuz.

Ez da irtenbide bakarra. Agian, egokiena ere ez. Berehala itzuliko gara adibide honetara.

Osa dezagun hori pare bat adibiderekin. Koldo Mitxelenarena da lehenengoa. Honela dio, Anabitartek idatzitako *Poli* eleberria hizpide (Mitxelena, 1988: 105; pasarte ondo ulertzeko, kontuan izan behar da Anabitarte bera dela *Patrones y capitanes de yate* obraren egilea ere):

Poli, Donostiako kaieko umezurtz bihurria, itsasora darama egileak, ihes egiteko aitzakiarekin bada ere. Itsasertzean jaioa izanik maite baitu itsasoa, *Patrones y capitanes de yate* argitara berria duen egileak bezalaxe. Gero, lehorreraturik, lehengo ezinegonak berak darabilelako edo, komeriante batzuekin abiatzen zaigu berriz Nafarro-Gipuzkoetan barrera. Ez, ordea, luzarorako. Etxateilapeko egonaren gozoa labur bederen ezaguna duelarik, ez zaio gehiago ahaztuko. Eta, emazte eta etxearen jabe egin ondoren ere, ez du Elizondon etsiko. Ezin baitaiteke izan, ez sortzailearentzat ez bere umearentzat, Paradisuaren antzekorik lur honetan, Donostian izan ezik, eta kai inguruan inola ere.

Horra hor, *Poli* mintzagaia, lerrokadaren buru-buruan, ondorengo esaldien (azkenekoarena ez beste guztien) mintzagai.

Baina mintzagaiak, lerrokada osoa ez ezik, lerrokada gehiago ere har ditzake, Andoni Egañaren pasarte honetan *Galán kapitainak* bezala (Egaña, 1998: 80-81):

Galán kapitainak buru-imintzio batez García Hernández kapitaina eta Labaka eta Murcia sarjentuak gelatik aterarazi zituen. Ez zituen Ateneoko zibilak tamainako erabakian nahasi nahi. Korridorean, kriseilu dardarti baten argitara, inoiz baino zurbilagoa zirudien, lokieta zain ttiki denak leherzori. Sakon hartu zuen arnasa bi-hiru bider. Beheko ezpainaz goikoari ausiki egiten zion behin eta berriz, behekoaren indarrez goikoaren tolestura gehiegizkoa lixatu nahi balu bezala. Zalantzan zegoen.

–Bagara ala ez gara? –zalantza hitz bihurtu zuen.

Villasanteren hasierako pasartean ere, bi lerrokada hartzen ditu buru-buruko mintzagaiak (euskarak). Horrexegatik ezaba daitezke ondorengo *euskara* guztiak.

Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, [euskarak] duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, [euskara] bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena.

[Euskara] hizkuntza bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena.

Baina mintzagaiarena, esan bezala, ez da amaitzen lerrokadaren hasierako mintzagaiarekin. Hala ere, oraingoz honetan uzten dugu.

2.3. Galdegaia eta sasi-galdegaia

Galdegaiari buruz ere, oinarri-oinarrizko lana da Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak egina (Euskaltzaindia, 1987: 30-36; 1991: 364-370; 1993: 25-29). Lehen oinarritzko ekarria azpimarratua dut 1. atalean: funtzio-egituraren eta mintzagai-egituraren arteko bereizketa, eta galdegaia iruzkinaren baitan kokatu izana.

Baina, horretara mugatu gabe eta beste bereizketa bat ere eginez, ikusia dugu galdegaiaren gaia ez dagokiola gramatikari, eta galdegaia berez berdin koka daitekeela aditzaren aurrean edo atzean.

Era berean aipatu dut nola, nahiz eta hori horrela izan berez, Hegoaldean ohituak gauden ia ehun urteko usadioz galdegaia (baiezko esaldietan) aditzaren aurrean ikusten irakurtzerakoan eta ipintzen idazterakoan; edo nola, bestela esanda, SOA hitz-ordenara jarriak gauden.

Hala ere, ohart gaitezen: ahoz eta kantuetan sarri samar erabili ohi dugu SAO hitz-ordena, inolako harridurarik gabe. Esaterako:

Gernikako arbola da bedekatua.

Idatziz, bestelako hitz-ordenaz idatziko genuke gaur askok:

Gernikako arbola bedekatua da.

Baina harrigarria egiten zaigu Orixeren honako hitz hauek irakurtzea (Ormaechea, 1918: 8):

Queríndonos decir el bardo Iparraguirre que el árbol de Guernica era bendito, nos dijo: “el árbol de Guernica es el que ha sido bendecido”. Solo por no haber puesto el *da* al fin, con lo cual alteró no solamente la sintaxis, sino también el acento; ó por mejor decir, no solamente alteró el acento, sino también la sintaxis; que lo uno y lo otro son inseparables en nuestra lengua.

Harrigarria egiten zaigu, gutako inork ez duelako ulertzen kantuaeren hasiera hori Orixek dioen moduan. Eta, hain zuzen, pasarte horrek ezin egokiago laburbiltzen du non dagoen Altubereren-eta funtsezko errakuntza, lehen atalean salatu duguna: doinua eta hitz-ordena lotu nahi izanean. Bide batez: Altubek ere badakar “Gernikako arbola” kantuaeren adibide hori *Erderismos* liburuan (Altube, 1975: 28), akastuntzat joz eta Orixeren lana aipatuz oin-oharrear.

Horiek horrela, orain hobeto ulertuko dugu Gramatika batzordearen bigarren oinarriko ekarria (Euskaltzaindia, 1987: 30; 1991: 364-365; 1993: 25-26; 1987ko liburutik hartu dut pasartea, eta bertakoak dira letra lodiak; aldaketa bakarra egin dut: *iruzkina* idatzi, 1993ko bertsioan bezala, eta ez lehen bietako *irazkina*):

Gramatika askotan **iruzkina** eta **galdegaia** nahasirik agertzen dira, baina hobe litzateke bi kontzeptuak elkarrengandik bereiztea. Galdegaia, hortaz, iruzkinaren barnean “hanpatua” den elementu gisa kontsidera genezake. Kontzeptu hertsia goa, beraz. Horrenbestez, ohart gaitezen mintzagaiak hitz egin dugunean ere mintzagai “hanpatua” ager zitekeela esan dugula. Bada, hemen ere antzera: iruzkinaren barruan elementu bat ager daiteke denon gainetik nabarmen eta hori izanen dugu galdegaia.

Ordena ez markatua duen perpaus batean ikus daitezke guzti hau:

Patxik esnea edan du

Perpaus horrek, jakina denez, bi interpretazio diferente izan ditzake: batean, **esnea** ez da hanpatua, zer gertatu den edo Patxik zer egin duen besterik gabe esaten baitu. Beste interpretazio batean, alabaina, Patxik **zer** edan duen esaten du hitzunik (aurkaritzako joko batean ikusten den bezalaxe: **eta ez ardoa**).

Iruzkina (hau da, **esnea edan du**) berdina da bi interpretazio horietan, baina bigarren interpretazioan baizik ez da agertzen galdegaia (**esnea**). Esan gabe doa, mintzaten garenean, desberdinketa hori ederki egiten dugula, **esnea edan du** ez baita bietan molde berean esaten.

Ezaguna dugu hasierakoa: ez ditugu nahasi behar iruzkina eta galdegaia; iruzkinaren baitako elementua da galdegaia. Ondoren dator oinarriko ekarria, irakurri berria dugun horretan laburbiltzen dena: “bigarren interpretazioan baizik ez da agertzen galdegaia”. Funtsezko hitzak dira. Azpimarra ditzagun.

Ohituegiak gaude (baiezko esaldietan) aditzaren aurrean doana galdegaitzat jotzen. Baina gogoan har dezagun Gramatika batzordeak esana: elementu hanpatua denean soilik da galdegaia; doinu enfatikoz nabarmentzen denean. Esaterako, “el aplauso”, “el aplauso le llamaban a aquella tortura” esaldian.

Altubek ere ondo definitu zuen galdegaia, lehen momentuan: elementu hanpatu eta enfatiko bezala. Baina berehala lerratu zen. Eta zaku berean sartu zituen elementu hanpatua (benetako galdegaia) eta ez hanpatua (sasi-galdegaia), eta biak jo zituen galdegaitzat.

Idaztean, guk ere biak nahasiz jarraitu dugu luzaroan, eta hala jarraitzen dugu oraindik. Izan ere, beti dago galdera bat egiterik esaldi bat idatzi aurretik, nahiz eta testuinguruan galderarik egon ez. Eta galdegaitzat jotzen dugu erantzuna, nahiz eta gehienetan sasi-galdegai baizik izan ez. Eskerrak gero, sasi-galdera hori irakurtzean, ez diogun doinu enfatikoa ematen; hain zuzen, galdegai ez delako. Senaz (oharkabean) zuzen jokatzen dugu: doinu enfatikorik gabe irakurtzen. Baina teoriarik eta idaztean nahasi egiten ditugu gauzak, eta galdegaitzat jotzen dugu sasi-galdegaia ere.

Galdegaia elementu enfatikoak izateak, bestalde, beste ondorio batera garamatza: enfatikoak bada, elementu urria da. Oso gutxitan ematen da, bai euskaraz eta bai beste hizkuntzetan. Beraz, alferrik ibiliko gara euskarazko esaldi guztietan galdegai bila. Konta ahaletan soilik aurkituko dugu.

“Gernikako arbola da bedeinkatua” kantuaren lehen esaldian ere ez dago galdegairik, ez ordena horretan (SAO) eta ez “Gernikako arbola bedeinkatua da” ordenan (SOA), nahiz eta beti galde diezaiokegun geure buruari “zein da bedeinkatua?” edo “nolakoa da arbola?”. Edozein erantzun emanda ere eta esaldi hori edozein ordenan idatzita ere, hor ez dago elementu hanpatu edo enfatikorik. Betiere, testuinguru horretan.

Are gehiago: bi ordenak dira, berez, ez markatuak. Besterik da, gaur egunean, Hegoaldean ohituagoak egotea SOA ordenara, idatziz behintzat, azken ia ehun urteotako usadioz. Eta ondo kontuan hartzekoa da hori ere, zuhur joka dezagun.

Zuhur jokatzek ez du esan nahi, ordea, lehenean jarraitzea. Beharrak agintzen baitu. Eta eskuhar baitugu Iparraldeko tradizio idatzia ere, eta eskurago eguneroko guztion ahozko hizketa.

Bide batez: mintzagai-egituraz ari garenez –eta ez funtzio-egituraz–, hobe dugu GA (galdegaia, aditza) edo AG ordenaz hitz egin, M (mintzagaia) oraingoz alboan utzita; eta, zehatzago jokatzuz, (S)GA ordena edo A(S)G ordena erabili, S horrekin sasi-galdegaia izendatuz eta (S)G formulaz galdegaia edo sasi-galdegaia adieraziz (aldian aldikoa eta bereizi gabe).

(S)GA ordena
erabilgaitza denean

(S)GA ordena erabilgarria da esaldi motzetan, baina erabilgaitzagoa luzeetan, eta buruhauste handiak sortzen ditu itzulpenetan. Gauzak azken muturrera eramanez, hona hemen adibide bat (Ararteko, 1991: 13):

Txosten honen helburua Ertzantzak nahiz Udaltzaingoak atxilotutakoak askatasunik gabe ordu batzutan, berriro aske utzi edo, agiango epaia egin dakien, epaikarien esku jarri arte egoten direneko, Euskadiko udal kalabozo eta Ertzantzaren expetxeen [sic] benetako eta lege-aldetikako egoera aurkeztea da.

Esaldi nahasia da oso, eta ez da konpontzen soilik *da* aditza aurreratuz (“txosten honen helburua” mintzagaiaren ostera eramanez) eta gainerakoa atzean ipiniz. Nolanahi ere, argi erakusten du zer-nolako arazoak ditugun euskarazko hitz-ordenarekin, nahiz eta –bistan da– azken hamabost urte hauetan aurrerabiderik egin den.

Ahozko testuetako
erreferentzia

Ahozko testuetan, errazago aurkitzen dugu A(S)G ordena.

Hegoaldeko adibideetara mugatuz, gogora dezagun nola ematen zituen Alfonso Irigoyenek gaiak Euskaltzaindiak antolatutako bertsolari-txapelketetan (Bertsolariak, 1963: 24-25; 36):

[Azpillagari eta Mitxelenari] Ofizioa emango diegu orain alkarrekin teman egin dezaten.

Azpillaga izango da Donostiako guardia bat, kale-kantoi batean geldidagoena, eta Mitxelena Gipuzkoako erri txiki bateko baserritarra. [...]

[Zabaletari eta Lazkao Txikiri] Ofizioa emango diegu orain alkarrekin teman egin dezaten. Iruna bertso.

Zabaleta izango da pistolerua, eta Lazkao-Txiki banku batean enpleatua dagoena. Sartu da pistolerua bankuan ta bertan aurkitzen dan enpleatuari, pistola eskuan duela, bankuko diru guzia eskatzen dio.

Manuel Lasarte bertsolariak, honelako erantzunak eman zizkion kazetariari, elkarriketa batean (Arzallus, 2002):

Bertsoak ematen zidan niri bizitzeko adina, hemezortzi urte nitueanean. Neroni bakarrik bizitzeko adina.

Orduan egin behar zen bertsoetako abisua zegoenean joan, eta ez zegoenean lan.

Bertsolariak behar luke, beste edozein ofiziotan bezala, ofizial on batek irabazten duen soldata urtean.

Niri bertsoak eman dizkit gauza sentimentalak. Lagunen adiskidetasuna, bat. Herriak ezagutzeko egokiera, bi.

Bertsolariekin nik ez dut okerrik izan. [...] Nik faltatu baldin badut eta norbaitek baldin badauka errezero hori, nik zer erru daukat ba?

Nikolas Segurola frantziskotar gaztagileak, berriz, honela erantzuten dio kazetariari, honek ea erretratuta joan den gazta-txapelketara galdetutakotan (Ibargutxi, 2004):

Errezatu? Zertarako? Gazta txapelketa irabazteko? Hori egoismoa litzateke. Hori da errezatzea bezala gure futbol ekipoak irabaz dezan; eta beste ekipokoek ere errezatzen badute, orduan zer?

Bestalde, A(S)G ordena behin baino gehiagotan aurkituko dugu, jakina, ahozko jardunaren harian idatzitako testuetan ere. Esaterako, honela hasten du Sebastian Salaverriak *Neronek tirako nizkin* autobiografia (Salaverria, 1964: 9):

Ni mundu ontara sortu nintzan Abenduaren 26-an, 1915-garren urtean, gaubeko amabietan, Oiartzun-go partean dagoan Elbitxuri izena duan baserrian.

Ordena horixe erabiltzen du, sarri samar, Jose Antonio Oar-Artetak ere *Zaar-barri* liburuan. Adibidez (Oar-Arteta, 1991: 90-91):

Bein batean gizon aldratxu batek eztabaida auxa atara eban, mai baten ingeruan jarrita egozala: Zein ete zan munduko atsegiñik andiena? Batek esan eban munduko atsegiñik andiena zala aragikiñekin goizaltzea, oneik goiz-goizerik eukiten ebela gibel-jana, saieski, okela-erre, arda, akeite edo kafe, edari-bizi ta gaiñerakoa. Beste batek esan eutsan atsegiñik ederrena zala, “abadeekin bazkaltzea”, onen lapikotxua txikia, baiña gozoa izaten zala-ta...

Eta hitzaldiren baterako idatzitako testuan? Koldo Mitxelena da, esaterako, ondorengo pasarte; 1956ko irailean idatzi zuen, Arantzazun egingo zuen hitzaldirako, Euskaltzaindiak gerra ostean egindako lehen biltzarrean (Mitxelena, 1998: 469):

Naiko bildurrekin agertzen naiz zuen aurrean, ta bi gauzengatik: batetik, ba, bat batean neukan edo esanda neukan itzaldiaren gaia aldatu dudalako. Jakina, orretan eztuzue gauza aundirik galduko; izlaria aldatu izan balitz, oraindik, baño gaia bakarrik izan da. Eta bigarrena, ba, nere gain badaukadalako, zerbait bildur izateko gaia badaukadalako. Alegia, ni baldin banintz fabrika nagusi bat eta ari baldin banintz Euskalerriko mendiak murrizten, Euskalerrria kanpoko langillez batetzen, ba ni batere bildurrik gabe agertuko nintzake zuen aurrean. Mundu guztiak daki orrelakoak ez tirela euskararen etsai. Baño euskerak, zenbaitek uste dutenez etsai bat du, eta etsai ori da linguista. Zoritxarrez ni saio orretakoa naiz.

Aditza aurreratzen

Apurka-apurka, ari gara aldatzen (S)GA ordena zurruna. Ez dago maisurik beharra bezalakorik.

Bidea urratuz, aholku erabakigarria eman bide genuen Zubimendik eta biok –“aditza aurreratu”– aditza ahalik gehien aurreratzea aholkatu genuenean (Zubimendi, Esnal, 1993: 199-205). Hala ere, ez ginen ausartu esatera “galdegaia nahiz sasi-galdegaia aditzaren atzera pasa”.

Urrats hori IVAPeko lankideek egin zuten, “aditz deklarati boak aurrera pasa” aholkatuz (IVAP, 1994: 54). Gero, Egunkarikoek garatu zuten aholkua beren estilo-liburuan (Egunkaria, 2001: 34-35). Eta IVAPekoek beraiek jarraitu dute osatzen: “definizioetan eta zerrenda luzeetan, laburrena aurrera” (IVAP, 2003: 224-225), “aditz deklarati boak aurrera pasa” (IVAP, 2003: 225-227), “aditza aurreratu” (IVAP, 2005: 127-131). Eta, oraintsu, Berrikoek berri dute, “aditza, lehenbailehen” aholkua zenbait estrategiaz hornituz (Berria, 2006: 31-32).

Praxia ere terrenoa irabazten doa pixkana-pixkana.

Esaterako, Andoni Egañaren *Pausoa noiz luzatu* eleberritik hartuak dira ondorengo adibideak (Egaña, 1998; ikus gehiago eranskinean):

Joseba zen herriko gazte bat, Frai Kandidorekin eskolan ibilitakoa, igande iluntze batez Erriotik bueltan, gerrian behera zintzilikaturiko xingola edo oihal-zerrenden artean hiru –txoria, gorria eta berdea– aldaka baterantz propio bereizi eta Guardia Zibilaren kuartelaren aurretik pasatu nahi zuena. (72-73)

Lozano sarjentua zen gizarajo bat, gizon zintzoa eta kirol-zalea inon bazen. (85)

Amaitzean bikarioak esan zidan ongi aritu nintzela, baina pizarren bat beharturik, gogortxo, errietan bezala. (108)

Bilduko zituen usadioa eta etorkizuna. Eta bilduko zituen lurralde haren izena eta biztanleen izena. Dena bilduko zuen *Jacetania!* hots eginda. (120)

“Eta Erregea? Zuetariko edonor baino bizkorragoa al da? Langileagoa? Finagoa akaso? Ez, ez da. Da alferragoa, zabarragoa, ezgauzagoa, hemen, Jacako herrian bildu garenon arteko edonor baino.” (122)

Azken adibide honetakoa da ausartena. Baina gramatikala da. (Ikus, bide batez, Mitxelena, 1988: 153-154; oin-oharra.) Horren ildotik, honela ere itzul genezakeen euskal gotzainen pasarteak:

Piztuerako Pazkoa ospatzea da begira jartzea, bihotza zabal-zabalik, behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera. Da aitortzea Jainkoaren neurrigabeko maitasuna; Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualean eta betiereko ospean. Da sentitzea mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago. Da berreskuratzea munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna, ezeren eta inoren esklabo izan gabe. Da hartzea lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina, denek elkartasuna aurrez gozatuz.

Eta Unai Elorriagarena da hau (Elorriaga, 2003: 34):

Daliren koadroak, esaterako, ez dira argiak edo ederrak edo presentableak: Daliren koadroak dira karismatikoak.

Dena den, bizirik dago zorionez Iparraldeko tradizio baliotsua. Esaterako, honela diote Jean Haritschelharrek eta Pello Salaburuk (Haritschelhar, Salaburu, 1999: XV):

XX. mendeak euskararen alorrean ezagutu ditu bi hizkuntzalari handi, biak euskaltzainak eta biak unibertsitateko katedradunak. Bietarik gazteena, euskalduna, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, Koldo Mitxelena izan da, tesia irakurri zuenetik, zinezko maisua bai euskal ikerketetan eta bai Euskaltzaindian. Haren obra publikatua izana da, idatzi dituen liburuak eta artikuluak baliatuak dira edozein tesitan mundu zabalean.

Zaharrena, René Lafon, sortu zen Merignac hirian 1899-an. Frantziako eskola nagusietan estudioak eginik (Ecole Normale Supérieure de la rue d’Ulm) filosofia irakasle izana da Alençoneko, Pauko eta Bordeleko bigarren mailako ikastetxeetan. Pauen bizi zelarik, Vendryes hizkuntzalariaren aholkuari jarraikiz, oporrak pasatzen zituen Larreñe Zuberoko herri ttipian euskara ikasi nahiz. Hamar urteren buruan menderatzen zuen xuberera ez zituelarik batere baztertzen bertze euskalkiak. Berak salatu du zer lan nekea izan zen euskararen ikastea: “Nik üskararen ene bürialat sarrarazteko behar ükhen khosta xüt eta lüze bat igan, Larrañekua. Biga bostetan igan dit, huñez, khargatürrik, ekhitolzian. Ordian gazte nündüzün.”

Pixkana-pixkana ari gara ohartzen zer esan nahi duen ikuspegi gramatikaletik ikuspegi komunikatibora igarotzeak; eta, zehatzago, zer esan nahi duen gaitasun testuala, gaitasun soziolinguistikoa eta gaitasun estrategikoa lantzeak. Euskalduntzearen laugarren maila jorratzeak ere eskaintzen digu horretarako baliabide egokirik.

Eranskina

Eranskin honetan, hogeita hamalau adibide biltzen ditut, lau multzotan banatuta. Denak dira Andoni Egañaren *Pausoa noiz luzatu* eleberritik hartuak (Egaña: 1998) eta denak A(S)G ordenaren lekuko. Gehiago ere badarabiltza obra horretan, baina nahikoa izan dezakegu hauekin.

1. Deskripzioak, definizioak eta antzekoak

Joseba zen herriko gazte bat, Frai Kandidorekin eskolan ibilitakoa, igande iluntze batez Erniotik bueltan, gerrian behera zintzilikaturiko xingola edo oihal-zerrenden artean hiru –txoria, gorria eta berdea–aldaka baterantz propio bereizi eta Guardia Zibilaren kuartelaren aurretik pasatu nahi zuena. (72-73)

Lozano sarjentua zen gizarajo bat, gizon zintzoa eta kirol-zalea inon bazen. (85)

“Badira zenbait gauza goitik behera egin beharrekoak, eta horietako bat da sermoia”, esan zien... (97)

–Mendekua da gaizki egin dizula uste duzun hari txapon beraz ordaintzea. (109)

Mendekua zen berez, kalte egin dizutela uste izan, denbora tarte bat igarotzen utzi, eta ustez kalte egin zizun hari tamainako kaltea egin nahia. (109)

Alfiletan bata izango zen Casares Quiroga, begi-handia, beltzarana, izuti itxurakoa. Eta bestea, ume aurpegidun ilea atzerantz behartutako bat: Jose Antonio Primo de Rivera. (137)

–Gure iritzia da otsoaren ahoko zulora sartzen ari garela –esan zuen batek. (166)

Buruan egunak, izenak eta gauzak hartzen izan naiz beti pattala. (171)

Ni izenak eta gauzak buruan hartzen izan naiz txarra. (173)

Baina ni Inazio naiz, hutsaren hurrrena, eta Frai Kandido da Frai Kandido. (175)

Gainera, belarriak ere ditut erneak, ernerik bada. (177)

Orduan onena zuten, Galloren iritiz, nola edo hala haiekin hitz egitea. (202)

2. Aditz deklaratioekin

Amaitzean bikarioak esan zidan ongi aritu nintzela, baina pizarren bat beharturik, gogortxo, errietan bezala. (108)

–Ez al du hango pasarte batean esaten zentzatzeko denen aurrean bekatu egin dutenak, besteei ere beldurra sartzeko? (110)

eta esan zion adiskideari ez zegoela zertan hain mirrina izanik, inoren buruzagi izatekotan mendekoen joera beretsuak onartzen behar zuela ikasi, bere buruari gutxiago begiratu. (116)

“Eta nik diot, menduko gizonik apartena balitz ere, ba al luke eskubiderik berak bakarrik eta gutizia noiz, orduantxe, Gobernu osoa izendatzeko?” (122-123)

Senak esan zidan Josebari agindutako zena zelako hura Francorentzat zuela. (177)

Javierrek kontatu zidan nola bere aitak, Kosmek, bilera horietako batera joan eta lepa-samarretik heldu eta airean ibili zuen. (179)

Salinas kapitainak kontatu zion bezpera gauez banatu zirela, eta ordurako urrutian behar zutela, han-hemenka purraturik. (205)

Erkaketa zilegi bazait, nik esango nuke aitorleak egin behar dituela “saludadore” lanak. (212)

Esan zidan Machado hori ona izango zela, baina ez zekiela ezer asko ingude eta kanpai-hotsen gainean. (229)

Jaengo mutil gazte batek esan zidan ez zuela asmatzen denbora nola agortu, eta esateko nik nolakoa nahi nuen eta marraztuko zizkidala planoak. (229)

Alferrik esango zien haiei Estatua askatasun-zikiratzaile zela eta udalak eta gainerako bitarteko antzutuak gaindituz, Komunak eta Sindikatuak osatu behar zirela tokian tokiko ondasunen banatzaile eta aberastasunen zaintzaile. (233)

Galán-ek zioen esateko amari, egin behar zuena baino ez zuela egin. (256)

Gure aitonak esaten zuen, azal-berritzeko onena hondarrez igurztea izaten dela. (256)

–Inaziok zabaldu du kutxan zeneramana ez zela oparia –bota zion bat-batean... (276)

3. Bestelako aditzekin

Bilduko zituen usadioa eta etorkizuna. Eta bilduko zituen lurralde haren izena eta biztanleen izena. Dena bilduko zuen *Jacetania!* hots eginda. (120)

Eta erabaki zuen, erabaki hura ere okerrekoa izango zen baina, arrazoiak neurtzen edo sena zorrozten aritu ordez, zetorrena zetorrela, zetorren bezala hartzen ikastea. (123-124)

Ikasi behar omen nuen hitzak azalean zioena baino sakonerago jotzen, barrurago, muinerago. (182)

Eta sena zurkaizten hasi nintzenean, jabetu nintzen Frai Kandidoren kontu horrek bazituela adabegiak nonahi. (183)

Baina aholkua eman zidaten izateko zorrotzagoa, estutzeko gehiago umeak, eta penitentzia lazteko... (210)

4. Izan adizkia esaldiaren buruan

“Eta Erregea? Zuetariko edonor baino bizkorragoa al da? Langileagoa? Finagoa akaso? Ez, ez da. Da alferragoa, zabarragoa, ezgauzagoa, hemen, Jacako herrian bildu garenon arteko edonor baino.” (122)

Bidez joango ziren. Ez ziren ihesean zihoazen giza-samalda. Ziren Errepublikaren alde matxinaturiko taldea, bere burua harrotasunez erakusten zuena, nahi zuenak ikusi. (152)

Zen nonbait, oso gizon arriskutsua, eta okerreko asmoak zituena. (178)

Bibliografia

- Altube, S.** 1975. *Erderismos*. Bilbo: Indauchu.
- Berria.** 2006. *Estilo liburua*. Berria.
- Egunkaria.** 2001. *Estilo liburua*. Andoain: Egunkaria.
- Elosegi, L., Esnal, P.** 2004. Konexioa: testu-antolatzzaileak. *Hizpide* 57: 67-80.
- Esnal, P.** 1998. Koherentziaz. *Jakin* 107: 31-47.
- Esnal, P.** 2002a. Testu-antolatzzaileak. *Hizpide* 50: 25-36.
- Esnal, P.** 2002b. Testu-antolatzzaileen erabilera estrategikoa. *Hizpide* 51: 19-33.
- Esnal, P.** 2003. Hitzaurrea. In San Ignazio. *Loiolako San Ignazioren Gogojardunak* [Patxi Altunaren itzulpena]. Bilbo: Klasikoak, 7-25.
- Etxezarreta, E.** 1981. Euskal Elizbarruti arteko “Itun Berria”. *Euskera* 26: 199-217.
- Euskaltzaindia.** 1987. Hitz ordena. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-I (Eranskina)*. Bilbo: Euskaltzaindia, 19-46.

- Euskaltzaindia.** 1991. Hitz ordena. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Bilbo: Euskaltzaindia, 355-379.
- Euskaltzaindia.** 1993. Osagarrien ordena perpausaren barnean: mintzagai hanpatua eta galdegaia. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia, 22-31.
- HABE.** 1999. *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua*. Donostia: HABE.
- Hidalgo, B.** 1994. *Hitzen ordena euskaraz*. Doktoretesia (<http://www.inguma.org>).
- IVAP** (HAEE: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea). 1994. *Hizkera argiaren bidetik*. Gasteiz: IVAP.
- IVAP** (HAEE: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea). 2003. *Galdezka. Euskarazko zalantzei erantzunez*. Gasteiz: IVAP.
- IVAP** (HAEE: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea). 2005. *IVAPeko estilo-liburua*. Gasteiz: IVAP.
- Mitxelena, K.** (1988): Galdegaia eta mintzagaia euskaraz. In *Euskal idazlan guztiak VI. Hizkuntzalaritaz I*. Euskal Editoreen Elkarte: Klasiakoak, 26: 137-167.
- Ormaechea, N.** 1918. Acento vasco. *Revista Internacional de Estudios Vascos* IX: 1-15.
- Rijk, R. de.** 1969. Is Basque an S.O.V. Language? *Fontes Linguae Vasconum*, 1: 319-351.
- Villasante, L.** 1975. Hitzaurre gisa. In Altube, S. *Erderismos*. Bilbo: Indauchu, V-XII.
- Villasante, L.** 1976. Seigarren edizioari aitzinsolasa. In Axular, P. *Gero*, IX-XXXIV.
- Villasante, L.** 1988. *Euskararen auziaz*. S.I, s.n. ["Luis Eleizalde" saila. 9].
- Zubimendi, J. R., Esnal, P.** 1993. *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Adibideen iturriak*
- Ararteko.** 1991. *Kalabozoak. Ertzantzaren eta udalen atxiloketa egoitzak. Los calabozos. Centros de detención municipales y de la ertzantza*. Vitoria-Gasteiz: Ararteko - Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Arzallus, A.** 2002. Manuel Lasarte bertsolaria. *Egunkaria*: 2002.09.22: 48-49.
- Bertsolariak.** 1963. *Bertsolarien Txapelketa (30-XII-1962)*. Tolosa: Auspoa [Auspoa: 22].
- Egaña, A.** 1998. *Pausoa noiz luzatu*. Irun: Alberdania.
- Elorriaga, U.** 2003. *Van't Hoffen ilea*. Donostia: Elkar.
- Euskal gotzainak.** 1998. *Exhortación pastoral de los obispos de Pamplona-Tudela, Bilbao, San Sebastián y Vitoria. Cuaresma - Pascua de resurrección / Iruñe eta Tuter, Bilbo, Donostia eta Gasteizko gotzainen artzain aholkua. Garizuma-Piztuerako Pazkoa*. Donostia: Idatz.
- Haritschelhar, J., Salaburu, P.** 1999. Aintzin solas. In Lafon, R. *Vasconiana*. Bilbo: Euskaltzaindia [Iker 11]: XV-XVI.
- Ibargutxi, F.** 2004. Pozik artzain frantziskotarra. *Diario Vasco*, 2004.09.09: 9.
- Mitxelena, K.** 1988. *Euskal idazlan guztiak II. Liburuak I*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte [Klasikoak 22].
- Mitxelena, L.** 1998. Arantzazuko batzarra (1956). *Fontes Linguae Vasconum* 79: 469-474.
- Oar-Arteta, J. A.** 1991. *Zaar-barri*. Bilbao: Labayru.
- Rivas, M.** 2006. *El héroe*. Madrid: Alfaguara.
- Salaverria, S.** 1964. *Neronek tirako nizkin*. Tolosa: Auspoa [Auspoa, 38].